

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Guraso Eskola
abian /08**

KULTURA

**Otsaileko
kultur ekitaldiak /09**

LEINTZ GATZAGA

**Patinatzea
modan /10**



**ARRASATE-ARETXABALETAK
INSTITUTUAK
25 URTE**

KEPA URRA: 12 URTE KARTZELARATU ZUTELA/4 • KIROLAK: ARLUTZ FUTBITO TXAPELKETA/6

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 31
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 1
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

OHARRAK

ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA
Bihar, zapatua, eskualdeko manifestazioa egingo dute, 18:30ean Mitarte kaletik aterata. **Errespioari stop.** *Euskal presoak Euskal Herrira* izango da leloa.

SAN BLAS EGUNA

Martitzenean, otsailak 3, San Blas eguna ospatuko dugu. 10:30ean, meza esango du Pablo Letona abadeak Sailuenteko ermitan, eta gero, 11:00etan, jakiak bedekatuko ditu.

RUKULLAKTAKO PROIEKTUAREN GAINKO DIAPOSITIBA EMANALDIA

Ibon Antero Hiruatxeko ki-deak Ekuadorreko proiektuaren gainean egingo du berba, eguaztenean, 19:00etan udaletxe zaharrean.

UDALTAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak 112

Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofati)	943 78 28 00

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Ludoteka zabaldu zuten, umeeke jolas egin zezaten

Herriko umeeke jolas eginaz euskara lantzeko helburuarekin jarri zuen abian ludoteka Loramendi EEk. Santa Kurtz kalean zuen egoitza, eta 5 eta 12 urte bitarteko 172 umeeke eman zuten izena. Tokia, baina, txiki geratu zitzaizten, eta adinaren araberrako taldeak egin behar izan zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Esku-zatarra."

Eskuak lehertzeko eta abar sukaldean erabiltzen den zapiak. —*Ekarri esku-zatarra eskuak garbitzeko.*



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Gartxot'

Komiki honek Arturo Campionek Nafarroako Zaraitzu aldean jasotako istorioa kontatzen du, hark *Itzaltzuko bardoa* izena eman ziona. Egileak Itzaltzura inguratu ziren gertaeren berri zuzenean jasotzeko, eta tokiko hizkuntza erabili dute autentikotasuna emateko. Orri baikoitzaren azpialdean hiztegia dago ulertu ahal izateko.

Gartxot erromesen gidari eta koblakari aritzen zen semearekin Orreaga aldean Erdi Aroan. Fraideek semearen ahots ezia entzun eta Orreagan bertan eduki nahi izan zuten, aitarengandik bananduta.

Gidoia Asiskok moldatu du, marrazkiak Markorenak dira eta kolorea Jokinek eman dio komiki bikain honi.



GARTXOT


Asisko, Marko eta Jokin
Argia, 2003
89 orrialde

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK




ARETXABALETA
Helene Altuna
23an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeke guztien partetik.



ESKORIATZA
Iker Lekuona
26an. Berandu bada ere, zorionak eta muxu bat, txapeladun!



ARETXABALETA
Josu Aizpurua
30ean, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeke guztien eta lagunren partetik.



ARETXABALETA
Malen Gastañaga
30ean, 1 urte. Zorionak eta muxu bat, Juneren eta etxeke guztien partetik.



ARETXABALETA
Nagore Balanzategi
30ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeke guztien partetik.



ARETXABALETA
Aitor Caballero
30ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Mikel, Xabier eta Iñaki.



ARETXABALETA
Marilu Madinabeitia
30ean. Zorionak eta urte askotarako, Almen guneko 2. Ako ikasleen partetik.



ARETXABALETA
Puri Aitube
Otsailaren 2an. Zorionak eta urte askotarako, etxekeko partetik.



ARETXABALETA
Ainara Zugasti
4an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeke guztien partetik.



ARETXABALETA
Joaness Sarasua
4an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeke guztien partetik.



ARETXABALETA
Puri Beltran de H.
4an. Zorionak eta urte askotarako, etxeke guztien partetik.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

BABESLEA
PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza
35mm, APS eta digitalen errebelatuak
24 orduan. Tamaina guztiak.
Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

ATREBENTZIAEZPADA/ Badaukotzu San Blas egunien Sailluenteko ermittara fateko ohitturaik?




ASUN LETURIONDO
Jubilae



RAFAEL DOVALO
Langillie




JAIONE OLABE
Langillie



JOAKIN LIZARRALDE
Jubilae



ANTONIA UNZUETA
Jubilae



BELISARIO MANTECA
Langillie

Nik neuk ez dauket ohitturarik, baiñe nire gizonak bai. Harek gozo batzuk eta San Blas opillak eruan izen ditte. Umeei behin edo birritan jarri dotsiet kordoiak, baiñe gehixau ez.

Behin edo birritan fan naz, errelebuen nabil lanien eta ezin izeten naz beti fan. Bokadillo eta guzti fan izen gara, beste bikote batzuekin eta umiekin. Han giro ona egoten da, jente asko.

Umetan ikastolatik fan ize ten gitzen, eta oin be gustetan jat fatie, libre banau behintzet. Abadiñora ez naz sekule fan eta egixe esan, ondiokan ez dot probau kordelen efektue.

Bai, aurten be badauket fateko asmue. Andriek erueten ditte bedeinkatu biherrekuek, baiñe gero neuk be jaten ditte. Ondiokan ez naz egon, baiñe aurten Abadiñora be banoie.

Bai, urtero faten naz, oinez gainera, eta aurten be badauket fate asmue. Gailletak, txokolate apur bat, karamelo batzuk, gatz apurtxo bat... Abadiñon pasadan besteik ez naz egon.

Ez. Umetan faten nintzen eskolatik. Amak naranjak eta beste jateko batzuk emuten euskun bedeinkaketako, eta haretzek erueten nittuen; baiñe ez, ordutik naz barriro egon.

TXALOKETATXISTUAK



TXISTUAK ZAPATU GAUEKO ONDORIOAK Ondo dago zapatu gauean ondo pasatzea eta parrandan ibiltzea, baina ingurukoek kalterik sortu barik. Joan zen domeka goizean zaborra duen edukiontzia bide erdira botata agertu zen. Baten bati barregarria iruditutitzaion, argi dago, baina errepidean zetozen automobiei eragotzenak eta arrisku uneak sorraraztea besterik ez zuen lortu. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

ASTEAN BEHIN /05

KIROLAK /06

Institutuak 25 urte bete ditu

Aretxabaletako institutuak 25 urte bete ditu. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatutituzte.

Kepa Urrak 12 urte kartzelan

Kepa Urrea kartzelaratututela 12 urte pasatu dira. Hori gogoratzeko ekitaldiak antolatutituzte.

Arlutz Futbito Txapelketa

Arlutz Futbito Txapelketa aurrera doa, eta MCM taldea doa lehenengo sailkapenean.

ASTEKODATUA

5.231

HERRITARREK DUTE BOTO ESKUBIDEA

Datorren martxoaren 14an egingo diren hauteskudetetan 5.231 herritarrek eman ahal izango dute botoa. Aste honetan atera dute errolda eta astelehena arte egongo da ikusgai udaletxean.

BESTEKEESANA


Hamaika urte zerbitzu moduan lanean ibili ondoren, industria arloran aldatzea erabaki nuen. Horretarako goi mailako ziklo bat ikasi behar nuela erabaki nuen eta hiru aukera ezberdinen artean, Aretxabaletako Institutua aukeratu nuen. Konkretuki, goi mailako **Fundizioa eta Pulbimetalurgia bidezko produktzioa** zikloa egiteko.

Banituena ardura batzuk: gelako ikaskideak ni baino hamar urte gazteagoak ziren, urte pila bat neramatzan eskolara joan gabe... Baina berehala egokitu nintzen egoera berrira, esperientzia oso polita izan nuen, gustura eman nituen kurtso biak.

Lehenengo kurtsoan, ikasle gehienok Fagor Ederlanen sartu ginen, eta hor jarraitzen dugu.

ALBERTO ETXABE
Aretxabaleta Institutua/04-01-28

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Salbuespen egoeran

Kale kantoittik ikusi neike zenbait artista, musikari, paillazo, eta bestelakuek azken urtiotan bizi dauien salbuespen egoerie.

Euren lanak kaleraketako eta saltzeko daukien zailtasunek eta bidien ipinten dutzien trabak.

Azken aldixen protagonistetako bat F.Muguruza da, baiñe bere aurretik beste hamaika izen die: Takolo, Pirritx eta Porrotx, Berri Txarrak... eta bidien ahaztute geratu jatenak.

Bestela be euskaldunok badaukou hamaik burukomin hemen jazoten dien kontuekin.

Kuraiak abesti baten holan esaten dau: "burmuin gutxi gaituk haundi baten kontra, irudimena duk gure ekintzarik zuzenena".

Holan da bai, irudimena bide lagun douelako urten die honeik artistok aurrera euren bidie zein dan erakutsi guran.

Espanak barrez, bide arteza boikotan bidez marke-

tan dau, eta gure lagunek okerreko bidera bideraketan ditte.

Kantoiene so nauela, kartel arraro bateaz tril ein dot: "erdtzera goaz!".

Otsaillien 5ien kazeta barri batek ongietorrixo eingo dusku, bera XIRIKA izengo da.

Esporo dot A-x bidie ondo hartute eukiko dozule eta urriñera allegauko zarella. Zorte on!!

Kalien gora jarraitute, beste kartel bat dauket begixen aurrine: "12 urte".

Buruei buelta batzuk emun ostien, akordau naz Kepa Urrea herriko presuek 12 urte beteko dituela kartzelan.

Honek bizi dauen egoerie be ez da bape normala, euskal presue danez gero, Euskal Herriko kartzela baten biheko leukielako.

Ah!, hau kantoitxuau aprobetxauaz, ZORIONAK KEPA otsaillien 11rako.

Hitz egin!!!
Adierazpen Askatasunaren rengatik!!!

"Irudimena bide lagun douelako urten die honeik artistok aurrera euren bidie zein dan erakutsi guran"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Oihana Elorza

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILERA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale



ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Kirol kontuekin

Kurtzebarrin beraino egin dusku edurre astien. Edur gehixau gure dauenak penaz egongo die, baiñe horrekin konformetan garenok pozik. Ondiokan, gaiñera, otsaille luzie eta seguru asko hotza izengo da.

Kirol kontuekin hasiko naz, ia beroketan garen. Izen be nesken futbol taldie edarto dabil. Azken aldixen irabazi eta irabazi dabit, eta fan zan astien be irabazi egin euien, nun eta Mondraguen. Datorren domekan etxien jokatu daue, eta normalien Almeneko futbol zelaixen badie be partiduek oinguen Ibarra izango da. Hortaz, goazen danok animuek emutera. Futbol zortzi egiten dauen beste neska talde bat be badaukogu herrixen. Honeik ez dabit hain ondo, baiñe gaztetxuek die eta ikesiko daue. Animo eta aurrera!

UDAk Gabon inguru en saldu zittuen egutegiko zozketie egin euien fan zan astien, eta Lazaro Luelmok jaso zittuen 600 euruek. Semiek ez euen zerikusirik izengo, ezta?

Bukaketako datorren astiei botako dotzagu begiradaxue. Izen be hitzorduz beteta dator: San Blas egune, Santa Ageda... Ia aurtengo Santa Ageda mutillek ondo portetan dien eta ez duskuen etxafleruekin belarrixek beroketan. Hala izen daixela!

INSTITUTUA/ Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua izan da gaur eguerdian institutuan egin duten esker oneko ekitaldian

Aretxabaletako Institutuak 25. urteurreneko ospakizunak egingo ditu aurten, gaur hasita

MIRARI ALTUBE


Aretxabaletan egoitza duen institutuak 25 urte beteko ditu aurten. Gaur hasi dituzte urteurreneko ospakizunak, eta esker oneko ekitaldia izan da, hain zuzen. Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua eta Arritxu Oliden alkatea egon dira, beste batzuen artean.

Arrasate-Aretxabaleta Institutuko Aretxabaletako egoitzak 25 urte beteko ditu aurten. Hori horrela, institutuaren gaineko liburuxka kaleratu dute, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

25 URTEAN ALDAKETA ASKO

Bailarako gazteek beste ikasketak batzuk egiteko aukera izan zezaten sortu zuten Aretxabaletako Institutua. Lanbide-heziketako eskolak ematen hasi ziren 80 bat ikasleri; mekanika alorreko ikasketak ziren.

Institutua sortu eta hurrengo urtean hasi zen Pablo Txintxurreta bertan lanean, eta gaur egun ere, institutuan jarraitzen du zuzendari lanetan. Orduko kontuak asko aldatu dira, eta gaur egun goi eta erdi mailako heziketa zikloko eskolak ematen dizkiete 160 ikasleri. Horrez gain, emakumeendako eta langabeendako



AMAGOIA LASAGABASTER

Goiko zikloko ikastaro bi eta erdi zikloko bost erakusten dituzte Aretxabaletako Institutuan, eta 160 ikasle ingurua dabilzta.

ikastaroak ematen dituzte, eta lana topatu ezinik dabilztaiei orientazio zerbitzua eskaintzen die Langairen bitartez.

Hori guztia eta gehiago gogoratu dute gaur eguerdian egin

duten ekitaldian. Enpresako eta erakundeen izenean etorritako jende asko hurreratu da; tartean, Arritxu Oliden alkatea eta Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburua. Institutuko historia jaso duen


bideoa ikusi dute, eta Felix Ormaetxeak egin du berba, institutua abian jarri zutenean bultzatzaileetako bat izan zelako.

Urteurrena ospatzeko hurrengo ekitaldia apirilean egingo dute.



Euskal jokoan Olinpiadak egiten dabilzta ikasleak

Urtero egiten dituzte Olinpiadak Kurtzebarri eskolan. Aurtengoa bosgarren aldia da. Neska-mutikoen arteko harremanak sendotzea eta lankidetzat bultzatzea dute helburu, eta ederto pasatzen dute guztiek. Lau aste zehar eguazteneko elkartuko dira Iturrigorri frontoian, euskal jokoak egiteko, eta aste honetan saku-lasterketak egin dituzte. /M.A.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

Expres



Santakurtz 16
943 79 23 43

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28



Hirusta Zatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

EUSKAL PRESOA/ Hainbat ekitaldi egingo dituzte zapatuan; tartean, afaria Taberna Berrin

Kepak Urrak kartzelan 12 urte daroala gogoratuko dute

M.A.

Dagoeneko 12 urte egin ditu Kepa Urria euskal presoak kartzelan. Atzo, eguena, bete zituen, hain zuzen. Batetik, hori gogoratzeko, eta bestetik, otsailen Keparen urtebetetzea izango dela jakinda, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako.

Ez da ospatzeko moduko urteurrena, baina bai gogoratu eta 12 urte kartzelan daramatzan Kepari elkartasuna adierazteko modukoa. Bihar, zapatua, egingo dituzte ekitaldi garrantzitsuenak: eskualdeko manifestazioa eta afaria, hain zuzen ere. Otsailaren 13an, oster, martxa antolatu dute Curtisera.

HAINBAT KARTZELA

Coruña-ko Curtisen dago Kepa, Aretxabaletatik 736 kilometrora. 1992ko urtarrilaren 29an atxilotu zuten. Torturatu, eta bederrazi egun pasatu zituen Basurto-ko ospitalean. Horren ondoren, hainbat kartzelatan izan da: Madrilgo Alcalá, Cadizko Puerto II, Madrilgo Valdemoro, Basauri, Langraitz eta Coruña-ko Curtis-en. Han daramatza azken bi urteak.

Isolamendu egoerak, gose grebak... Une benetan gogorak bizi behar izan ditu Kepak 12 urteotan. Gose grebei dagokienez, hainbat egin ditu. Luzeena 1992an egin zuen, Puerto II kartzelan; 26 egunekoa, hain zuzen. Alcala egon zenean ere egin zuen beste bat; 15 egunekoa.

MANIFESTAZIOA ETA AFARIA

Kepa gogoan izateko hainbat ekitaldi antolatu ditu Askatasunak. Atzo, eguena, esaterako, kale agerraldia egin zuten. Bihar, urtarrilak 31, oster, egun osoan izango dituzte ekitaldiak: goizeko 11:30ean, bolo txapelketa antolatu dute, eta arratsaldean, 18:30ean, eskualdeko manifestazioa egingo dute Mitarte kaletik aterata. *Errepresioari stop. Euskal presoak Euskal Herrira izango da manifestazioaren leloa.* Hori bukatutakoan, trikitilariak



Orain urte bi berri zuten Kepa Urraren oroimenez margotutako irudia.

Eskualdeko manifestazioa egingo dute bihar, urtarrilak 31, 18:30ean

lagundutako kalejira egingo dute tabernaz taberna, eta 21:30ak ingururako Taberna Berri jate-txera hurreratuko dira afaltzera. Bertsolariek giro-tuko dute, gainera, afal ordua eta, nola ez, baita afalostea ere.

OTSAILAREN 13AN CURTISERA

Otsailaren 13a Keparen urtebetetze eguna da. Hori horrela, zorionak eman eta elkartasuna

Zorionak eman eta elkartasuna adierazteko, Curtisera martxa antolatu dute

adierazteko asmoarekin Coruña-ko dagoen Curtis kartzelara martxa antolatu dute. Egubakoitzean, hilak 13, 23:00etan aterako dira Azbe lantegi paretik, eta gaua bidaian pasatu ostean, zapatuan ailegatuko dira Curtisera. *Euskal herritarrek direlako Euskal presoak Euskal Herrira leloa dauka martxak, eta joan gura duenak Urbaltz tabernan eman beharko du izena.*

LABUR

Aretxabaletako ikastola berriaren planoak erakutsi zizkien Arizmendik gurasoei

Batzarra egin zuten Arizmendi ikastolako arduradunek Santa Rita ikastetxeko umeen gurasoei joan zen astean. Datorren ikasturtea izan zuten hizpide; izan ere, umeek ez dute Santa Rita ikastetxean jarraituko. Mitarte kalean dagoen eraikinean izango du egoitza Aretxabaletako ikastola berriak. Oraindik ez dituzte zaharberritze lanak bukatu, baina Arizmendiko arduradunek planoak erakutsi gura izan zizkien gurasoei. Interes handia agertu zuten horiek, eta zalantzak argitzeko erabili zuten batzarra. Aipatutako planook Santa Ritako jolas lekuan daude orain ikusgai.

Santa Ageda bezpera eta eguna noiz helduko zain daude aurtengo Santa Ageda mutilak

Gabon ostean hasi zituzten aurtengo Santa Ageda mutilek dantza entseguak. 1988an jaiotako mutilak ibiliko dira aurtun, Santa Ageda batzen; 28 guztira. Eguaztenean, Santa Ageda bezpera, baserriz baserri joango dira kantuan eta eskean, eta eguenean, Santa Ageda eguna, herrian bertan batuko dute. Arratsaldean, 19:00etan, berriz, dantzan egingo dute Herriko plazan. Aratuste domeka bitartean, otsailak 22, domekero egingo dute dantzan.

TXUTXU-MUTXUA



Arratsalde-pasa bikaina pailazoen kontura!

Joan zen zapatu arratsaldea berezia izan zen herriko umeendako; izan ere, Takolo eta Porrotx pailazoak eta Poxpolin sorgina izan ziren gurean. Magia, bihurrikariak, kantuak, dantzak... Hori eta gehiago eskaini zizkieten pailazoen kirol etxean batutako 600 lagunei. Umeek begiak zabal-zabalik izan zituzten, eta, bukaera parterako, euren lekuetan geldi ezin egonda eszenatokira hurreratu gura izan zuten. Nahikoa lan izan zuten Porrotxek ume guztiei muxu ematen... /M.A.

KIXKUR
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABAETA

BAR GUREA
JATE-TXEA

EGYNEKO MENYAK
OTARTEKOAK ETA
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • Tel. 943 792064
ARETXABAETA

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABAETA
Tel.: 943 79 04 39

Dorleta taberna

Bezereen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaeta
Tel. 943 79 94 15

FUTBITOA

MCM taldea dago sailkapenean lehenengo Arlutz Futbito Txapelketan

Hamaikagarren jardunaldia jokatuko dute bihar, zapatua, Arlutz tabernaren osteko kantxan

MIRARI ALTUBE

Urrian hasi zuten Arlutz Futbito Txapelketa, eta lehenengo itzulia bukatu ostean, bigarrenarekin ere aurrera doaz. Hamargarren jardunaldia jokatu zuten joan zen asteburuan, eta sailkapeneko lehenengo postuan MCM taldea dago, 23 punturekin.

Zortzi talde dabilta jokatzen Arlutz Futbito Txapelketa, eta hamargarren jardunaldia jokatu eta gero, MCM taldea dago sailkapeneko buruan.

ZORTZI TALDE NORGEHIAGOKAN

Bederatzi taldek hasi zuten futbito txapelketa urrian, baina portugaldarrez osatutako taldeak ez du aurrera egin. Hortaz, zortzi talde dabilta, eta kide guztiak aretxabaletarrak dira. Joan zen zapatuan jokatu zuten hamargarren jardunaldia. Hona hemen emaitzak: Kemen taldeak galdu egin zuen MCM taldearen kontra, 4-5; TPMk galdu egin zuen DDK taldearen kontra, 2-3; Papi Txungok galdu egin zuen Peña Hugoren kontra, 0-1; eta, azkenik, Somos 4 taldeak galdu egin zuen Fonte Sport taldearen kontra, 0-1.

MCM TALDEA BURU

Sailkapenari begirada botaz gero, hona zer dagoen: MCM da lehenengo 23 punturekin, eta partidu bakarra galdua; atzetik Peña Hugo dator, 21 punturekin eta



MCM taldea dago sailkapeneko buruan, 23 punturekin.

partidu bi galdua; hirugarren postuan, atzerago, TPM taldea dago 19 punturekin eta hiru partidu galdua. Bistan da norgehiagoka bizia jokatzen dabiltzala futbito taldeak, eta ikusi egin behar sailkapeneko postuei eusteko gai izango diren, puntuen arteko diferentzia txikia da-eta.

Bihar, zapatua, hamaikagarren jardunaldia jokatuko da.

Hitzorduak: 11:00etan, Papi Txungo taldea Somos 4 taldearen aurka; 12:00etan, MCM taldea DDKren aurka; 15:30ean, TPM taldea Peña Hugoren aurka; 16:30ean, Kemen taldea Fonte Sporten aurka.

Hamasei jardunaldi ditu txapelketak. Gero, finalerdiak eta finala jokatuko dituzte talde onek, baina hori martxo inguruan izango da.



Neskak hirugarren daude sailkapenean

Derbia jokatu zuten neskek joan zen asteburuan, eta irabazi egin zioten Mondra taldeari, 0-1. Lur Delgadok egin zuen partiduko gol bakarra. Garaipen honekin Urola taldea aurreratu dute sailkapenean, eta dagoeneko, hirugarren postuan daude. Hurrengo partidua Salvatierra taldearen kontra jokatuko dute, domekan, 11:00etan, Ibarra futbol zelaian. / M.A.

PARTIDUAK — EMAITZAK

FUTBOLA

UDA-Trintxerpe

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Almen-Antoniano

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. -Urnietako

Hirugarren mailako seniorrak.

Aretxab. -Beloki

Lehen mailako seniorrak.

Egubakoitzea. 20:00. Iturrigorri.

FUTBOLA

Beti Gazte 0 UDA 0

Preferentea.

UDA 2 Bergara 0

Ohorezko gazteak.

Internacional 3 UDA 1

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 9 Aitzgorri 0

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 4 Lagun Onak 0

Ohorezko infantilak.

Oiartzun 2 UDA 2

Bigarren mailako kadeteak.

Mondra 0 UDA/Almen 1

Emakumeen liga.

Almen/UDA 2 Zarautz 4

F-8 emakumeen liga.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa

Aretxab. -Erreterria

Hirugarren mailako seniorrak.

Erreterriarrak ez ziren agertu.

Intxaurrondo 17-Aretxab. 22

Hirugarren mailako seniorrak.

Azpeitia 13-Aretxab. 22

Lehen mailako seniorrak.

Aretz
taberna
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Matikua
jatetxea
Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**
Aretxagazeta

BASABE
jatetxea
Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Mobiliario
ARENZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

SANER
ITURGINTZA
Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

OROLA
Herriko plaza z/g ARETXABALETA

MUNDUTARRAK ARETXABALETAN

JESUS MARTINEZ

68 URTE / ERRETIRATUA / SAN VICENTE DE LA SONSIERRA

“Otalako eta Kanpanzarko erromeriak, esaterako, mundialak izaten ziren”

OIHANA ELORZA

Urtarrilaren 17an 50 urte bete ziren Jesus Martinez San Vicente de la Sonsierratik (Errioxa) Aretxabaletera etorri zela bizi izatera.

“Oraindik oso ondo gogoratzen dut egun hura. Arreba bat hemen bizi zen dagoeneko, eta anaia Benigno, ama Eusebia eta hirurok etorri ginen egun hartan. Kamioi baten ekarri genituen arropak, altzariak eta traste guztiak. Ama eta arreba ekarritakoak bere lekuan jartzen, etxea antolatzen gelditu ziren, eta gizonak, anaia, koinatua eta laurok afaltzera joan ginen. Garcia-Etxabe sendiak zuen tabernan afaldu genuen”.

Etxea bazuten; lanik ez, ordea: “Baina berehala aurkitu genuen. Portasolen zegoen Garai enpresan hasi nintzen. Gero, beste hiru lantegitan ibili nintzen, taxilari hasi aurretik”. Garai hartan ez zegoen auto askorik, eta bidaia ugari egiten zituen Jesusek hara eta hona. “Gasteizera eta Donostiara bidaia asko egin nituen, medikuarengana asko, baina atzerrian ere

ibili naiz. Frantzia, Alemanian, Italian eta Belgikan izan naiz Copreci eta Ederlan enpresetako piezak eramaten”.

Lehen automobila noiz erosi zuen ez da oroitzen, “baina

“Zortzi auto izan ditut, eta 450.000 kilometro egin dizkiet, batez beste”

bai zortzi izan ditudala. Onak atera zaizkit, baina zaindu ere ondo zaindu ditut. 450.000 kilometro egin dizkiot bakoitzari, batez beste”. 34 urte egin ditu taxilari, eta ez du inoiz ezbeharririk izan.

Langile batzuek zortzi opor egun eta beste batzuek 15 izaten zituzten lehen, “eta jendea bertan gelditzen zen, ez zen

kanpora joaten orain moduan. Sekulako festak egiten ziren. Otala eta Kanpanzarko erromeriak, esaterako, mundialak ziren”.




BORONDATEZKO LANKIDEAK / Ibon Antero

Urtebete egin du Ibon Anterok Ekuadorren, Rukullakta herrian, Amazonian. Lehenengo egunak tokia eta herritarrek ezagutzen pasa zituen, baina konturatu orduko pasatu zaio urtea. “Kitxuek badute euskaldunon antza. Hasieran, distantzia pixka bat jartzen dute, baina behin ezagututa, oso jatorrak eta alaiak dira”, esan digu Ibonek.

Aretxabaleako Hiruatz taldeak, Markinako Mundu Zabal elkarteak eta Mundukide fundazioak elkarlanean landutako proiektu bat bultzatzera joan zen Ibon Ekuadorrera. Hango biztanleei, kitxuei, enpresa bat nola kudeatu, kooperatiba bat nola antolatu erakutsi nahi zien proiektu horrek.

Rukullakta herriko indigenek pentsu ekoizpena eta oilasko ekoizpena egiten zuten lehendik ere, “eta gure laguntza ekoizpen hori nola bideratu erakustea izan da”, azaldu digu Ibonek. “Adibidez, enpresako barne egitura antolatzen eta estatutuak egiten lagundu diegu. Beraiek badakite lana egiten, eta ekoizpen hori nola arautu eta aldi berean nola merkaturatu erakusten ibili gara”. “Lan hori nola bideratu azaltzen saiatu gara, enpresari kooperatiba itxura emanaz”, gaineratu du. Azkenean, iaz, CAIA enpresa sortu zen. Kitxueraz bihar esan nahi du hitz horrek.

Enpresa berri horrek 69 bazkide ditu, gutxi gorabehera, eta 8-9 lagunek dihardute bertan.



Eguaztenean Rukullaktako argazkiak eta kontuak azalduko ditu Loramendin

Orain, proiektuaren jarraipena egin behar dute, hemendik bertatik “eta baita han egonda ere. Azaroan, esaterako, unibertsitateko neska bat joan zen hara, eta kontabilitatea eta diru kontuak nola eraman erakusten ari zaie”.

Rukullakta herria Amazonian dago. Nekazaritza lantzen dute bertan, eta oso inguru aberatsa da: milaka landare mota, animalia ugari, askotariko frutak... Gizakiak zapaldu ez dituen bazter gutxi batzuk ere ba omen daude oraindik. “Berez oso inguru

ederrak daude. Turistikoki potentzial handia du Ekuadorrek. Amazoniaz gainera, kostaldea, Inken ibilbidea eta Andeak ere ederrak dira, baina ez dute operadore handietara iristeko indarrik”, azaldu digu Ibonek.

Kostako portuak eta Alpeetako sumendiak ere ikusi ditu berak, baina Amazoniako herri horretan egin ditu egun gehienak. Bertako biztanleek herriaren eta lurraldearen inguruko ezagutza handia dutela kontatu digu: “Adibidez, landare asko ezagutzen dituzte eta noiz eta zertarako erabiltzen diren ondo dakite”. Horrez gain, “harritu ninduen beste gauza bat xamanismoan duten sinismena da. Oilasko batzuk hiltzen baziren, adibidez, xamanismoari botatzen zioten errua. Lehen, indar handia zuten xaman petrikiloe”, dio. Beste herrialdeetako notiziak prentsa eta Internet bidez jasotzen dituzte: “Edozelan ere, oso gutxi irakurtzen dute, Internet ez dago hemen bezain hedatuta eta telebistan bospasei telenobela botatzen dituzte egunero”.

Inguru hartan ez dago urtarorrik, urte osoan argi bera dute, hamabi ordu. Lehorte garaia denean, ordea, bero egiten du eta euri garaian, sekulako zaparradak botatzen ditu. “Hango etxeak, gainera, egurrezko oholekin daude eginda. Txapazko teilatua dute eta euria egiten duenean, zarata ikaragarria izaten da; hizketan ibili arren, ia ez diozu lagunari ezer entzuten”./O.E.



Oilasko eta pentsu ekoizpena egiten du Rukullaktako CAIA enpresa kooperatibak.

Banatzailleak

Otsailetik aurrera, astelehenetako Goienkaria banatzeko pertsona bat behar da. Banaketa astelehenetan goizez izango da.

Anima zaitetz eta dei ezazu telefono honetara: 943 71 23 91.

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

ASTELEHENETAKO
Goienkaria

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 30a / 154. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALET A • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Seme-alaben heziketaz arduratuta dauden gurasoendako, Guraso Eskola abian

AINTZANE GARDOKI

Seme-alaben inguruko hainbat gaiez eztabaidatu eta hausnartu gura dutenek zabalik dituzte Guraso Eskolako ateak. Otsailean hasi eta datorren ekaina bitartean, hainbat gai jorratuko dituzte sortu berri den eskolan. Parte hartzeko, otsailaren 6a aurretik eman beharko da izena.

Azaroan, herriko guraso talde batek euskaraz kantatu eta jolas egiten ikasteko ikastaroa egin zuen. "Ikastaro hartan parte hartu zuten ama batzuek galdetu ziguten ea zergatik ez zen abian jartzen guraso eskola bat", esan digu Mari Carmen Arrietak. Gurasoek egindako eskaerari erantzuna eman guran, Udaleko hainbat sailtako teknikariek, elkarlanean, proiektua bultzatu dute. Otsailetik ekainera bitartean, hainbat aditurekin askotariko gaiak jorratuko dituzte gurasoek.



Seme-alaben heziketaz kezka duen edozein gurasoendako aukera zabala eskainiko du Guraso Eskolak.

IZENEMATEA OTSAILAREN 6A AURRETIK

Otsailaren 17an eta 18an egingo dute lehenengo saioa: *Baloreen heziketa*, hain justu. *Eskola porrotaren prebentzioa* da apirillean egingo duten bigarren ikastaroaren izena.

Horien ondoren etorriko dira *Seme-alaben sexualitatea*, *Gurasoen esku-bideak* eta *Elikadura arazoak: anorexia eta bulimia*. Urtxintxa eskolako kideek, Virginia Iglesias

eta Maite Garcia psikologoen eta Acabe taldeko kideek emango dituzte ikastarook. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derri- gorrerzko Hezkuntzako ikasleen

gurasoei dago zuzenduta eskola. 10 euroren truke, parte hartu gura duenak otsailaren 6a baino lehen eman beharko du izena kultura etxean edo udaletxean.

Gurasoek egindako eskaerari erantzuna eman guran, proiektua bultzatu du Udalak

Otsailean hasi eta ekaina bitartean hainbat hitzaldi eta ikastaro egingo dituzte

Eskolan parte hartu gura duenak otsailaren 6a baino lehen eman beharko du izena



Julian Gorospek hitzaldia egin zuen herrian

Kirol Elkarteak 40 urte bete ditu. Hori dela-eta, hainbat ekintza antolatu ditu kirola bultzatzea helburu duen elkarte horrek. Joan den martitzenean, hilak 27, Euskaltel Euskadi txirringulari taldeko zuzendari Julian Gorospe izan zen hitzaldia egiten; *Eli-teko kirolari baten bizitza eta bizipenak gaur*. Herritar ugari hartu zuten parte ekitaldian. Datozen asteotan, berriz, goi mailako beste kirolari batzuekin hainbat ekitaldi bultzatu gura dute elkarteko arduradunek.

LABUR

Astelehena arte errolda zerrendak jendaurrean

Joan den astelehenean hasi eta otsailaren 2a bitartean, errolda zerrendak ikusgai daude udaletxeko kontzejupean.

Datorren martxoaren 14an Espainiako hauteskundeak izango direlako jarri dituzte herritarren datuak jendaurrean. Hauteskundeetan parte hartu ahal duten herritarren datuak daude zerrendatuta. Beraz, edozein akats izanez gero, datorren astelehena baino lehen jo beharko dute herritarrek udaletxera akatsa zuzendu ahal izateko.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaltzeara	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailera	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Arizmendi Ikastola-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi Ikastola-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzailak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ANTZERKIA
Gaur, urtarrilak 30, Madrilgo Griot taldeak ipuin kontaketa egingo du HUHEZIn, 22:00etan.

'SEME ALABAK HEZTEKO OINARRIAK'

Arizmendi Ikastolak gurasoei eskaintako formazio saioen barruan hitzaldia antolatu du datorren asterako. Otsailaren 5ean, Gasteizeko Mintza psikologia zentroko José Felix Aspiazua psikologoak *Seme alabak hezteko oinarriak* deitutako hitzaldia emango du, 18:00etan, Jose Arana guneko azkeneko solairuan.

AXTROKIRENAGENDA

PROPOSAMENAK JASO GURAN

Aurtengo kultur ekitaldiak prestatu ahal izateko Axtrokik bazkideen proposamenak jaso gura ditu. *Axtroki @topagunea.com* era bidali proposamenok.

OTSAILEKO KULTURA EGITARAUA AURKEZTU DU UDALAK

Inauterietarako ekitaldi ugari antolatu dituzte haur eta nagusientzat

OIHANA ELORZA

Inauteriek betetzen dute otsaileko kultura egitarauaren zati handiena. Otsailaren 19an, Urdelardero Eguna egingo dute, eta zapatuan eta martitzenean ere ospatuko dituzte Inauteriak.

Urdelardero Egunarekin hasiko dira, beste behin, Inauteriak. Umeei zuzendutako ekintzak antolatu dituzte egun horretarako. Besteak beste, goizean, ikastetxeetako umeen kalejira izango da. Horren ondoren, txistorra banatuko dute plazan. Arratsaldean, jaialdia egingo dute plazan, Azkona taldearen eskutik, eta gero, txokolatea emango dute.

KUKUMARROA

Otsailaren 21ean (zapatua) egingo dute Inauterietako jai nagusia, Herriko Plazan. Luis Ezeiza ikastetxeak antolatutako *Koldotxo 60ko hamarkadan* jai izango da. Garai hartako musika, jantziak, eskulangintza hippya eta beste hainbat ekitaldi prestatzen dihardute ordurako. Arratsaldean izango da hori, baina eguerdian hasi-

Koldo Ameztoy kontalariak 'Harriola Marriola' ipuin ikuskizuna eskainiko du

ko dira ospakizunak. Herri bazkaria egingo dute pilotalekuan, babarrun-jana. Eta iluntzean, trikitilariak, mozorroen kalejira eta Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia izango dira.

Otsailaren 24an, martitzenean, goizean hasiko dira ospakizunak. Umeen jaialdia egingo dute Herriko Plazan, musika, dantza, txistorra eta guzti. Eta arratsaldeko 17:00etan, Kukumarroak aterako dira kultura etxetik.

Kukumarro handi bat egongo da Herriko Plazan. Herriarrek gauza txar guztien errudun egingo dute, eta norberak nahi duena idatzi eta zintzilatu egingo dio. Gero, dantza egingo dute pla-



Umeak izango dira aurten ere inauteriei agur egiten lehenak.

zan, eta kukumarro erruduna erre egingo dute.

SANTÁ AGEDA

Inauteriez gain, Santa Ageda egu-

na ere ospatuko dute. Herriko kintoek dantza egingo dute plazan, otsaileko lehen egunetan, eta musika kontzertua antolatu dute Inkernu tabernan.

TXUTXUMUTXUA



Artium bisitatu zuten, azkenean


Arizmendi ikastolako 6. mailako ikasleak aspalditik zeuden Artium museoa bisitatzeko gogo. Hilaren 21ean lineako autobusa hartu eta Gasteizera abiatu ziren. Baina Arlaban gainean ezin pasatuta gelditu ziren, kamioi batek izan zuen istripua zela-eta. Ez ziren Gasteizera iritsi, eta, gainera, oinez bueltatu behar izan zuten ikastolara. Azkenean ere, ikasleak heldu ziren Artiumera. Horren lekuko den argazki bat bidali digute.

LABUR

HUHEZIK antolatutako jardunaldiak

Enpresetako euskara planen eragileendako jardunaldiak egin ziren atzo, eguna, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean. Urte bete pasatu da *Kooperatibak eta Euskara* jardunaldiak egin zituztenetik. Urteak ekarri dituen gogoeta eta ekarpenak jaso dituzte asteon egindako jardunaldiotan. Jardunaldion helburu nagusiak gaiaren inguruan dabilzan pertsonen elkar ezagutza, eta dituzten kezka, iritzi eta etorkizunerako asmoak trukatzea izan dira.


BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Markoztatzea



Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

JENDE UGARI ERAKARRI DU TRAMANKULU BERRIAK HERRIRA

Kanpotar ugari etortzen dira herrira patinatzerara

AINTZANE GARDOKI

Skate park-a jarri dute berriro Gatzagan. Uda aurretik jarri zuten lehenengoz. Andramaixa jaiak zirela-eta kendu egin zuten U itxurako plataforma. Duela bi aste, berriro jarri zuten patinatzeko plataforma. Bada, zeresan ugari sortu ditu jende ugari erakartzen duen tramankuluak.

Aurreko agintaldia osatu zuten politikoei onartu zuten *skate park*-a delakoa herrian jartzea. *Skate*-arekin batera eta bestera ibiltzeko balio duen U itxurako plataforma jartzeko, 12.000 euroko partida onartu zuten arduradunek 2003rako aurrekontuan.

Udako oporrak hartu aurretik jarri zuten frontoi ondoko plaza patinatzeko plataforma. "Zeresan ugari eman zuen zoriezko U horrek", esan digu bizi-lagun batek. "Egia da izugarriko zarata ateratzen zutela gauean. Kanpotik jende asko etorri zen abuztuan, eta gauero-gauero gogorra izan zen zarata hura jasatea. Oso ondo iruditzen zaigu horrelako gauza bat ume eta gazteendako jartzea herrian, baina gauean zerbait egin beharko dute arduradunek, bestela haserre bat baino gehiago sortuko da-eta herrian", diote herritar batzuek.

Udan izandako keak direla-eta, *skate*-arekin ibiltzeko ordutegia mugatu egin gura dute ardura-



Egunotako eguraldi txarrak atzera eragin die patinatzaileei.

"Ez da erraza izango, baina ezin izango da ordu txikitan plataforman ibili"

dunek: "Ez da erraza izango, baina ezin izango da ordu txikietan plataforman ibili", esan digu Kultura zinegotzi Jon Sasiainek.

Herriko umeek gogotik disfrutatzen dute monopatinarekin, bai-

"Oso berezia da zer datorren ikustea. Moda oso bat da honen atzean dagoena"

na gero eta kanpotar gehiago datoz patinatzerara. "Datozenak ez dira oso gazteak, gainera. Oso berezia da ikustea. Moda oso bat da honen guztionen atzean dagoena", esan digu, harrিতuta, beste herritar batek.

LABUR


Gurasoen Elkarteak (GUREL) elurretara irteera egiteko proposamena egin zien bazkideei

Joan den astelehenean, hilak 26, bilera egin zuten GUREL elkar-tereko kideek. Bi gai nagusi izan zituzten bazkideek mahai gainean. Batetik, datorren hiletik aurrera museoan egingo dituzten zinema emanaldien gainean egin zuten berba. Eta, bestetik, otsailaren edo martxoan Zuriza aldera joateko proposamena egin zuten GURELeko batzordekideek. Zinema emanaldiak otsailaren 5ean hasiko dira ematen, eta Zurizara joan gura duenak 943 71 54 74 telefonoan eman beharko du izena.



Loramendi lehiaketako saridunak

XV. Loramendi Literatura Lehiaketan 320 ikaslek hartu zuten parte, eta bi gatzagar izan ziren sarituen artean: Ibai Agirreurreta eta Garazi Orobengoa. Ibaik, komiki sailean, hirugarren saria irabazi zuen. Garazik, berriz, elkarrizketa dotorea grabatu zion Patxi Lasagabasterri. Elkarrizketa grabatuen sailean lan onenaren saria irabazi zuen Garazik. Zorionak!



**MIRENTXU
TABERNA**
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

**AZKOAGA
ESTANKOA**

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

**Txalaparta
taberna**



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineke informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

**NAIRA
Taberna**

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

ALZA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Aretxabaleta okindegia

On egin San Blasetan!



Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
ARETXABALETA
Bertako okina

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



Alto Deba
margoak

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel.eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25



J.SANCHEZ
ITURGINTZA

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETAKO
Tel.eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



Gimbert

San Migel 13, behea C
ARETXABALETAKO
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETAKO

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorazio eta Industrialak

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxe: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estruktura,
urbanizazio, kontrata
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren
OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza •
Gasa •
Berogailuak •
Peetrolio-produktuak •
limatizazioa •

L. GONZALEZ
PINTURAK
Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETAKO
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELOORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETAKO - GIPUZKOA
943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOAK
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGIAK

Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

Araba ibilbidea, 17 eta 25
Tel.: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
• 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
• E-mail: kurtzabarrilehiak@euskalnet.net



MAKAI
Koop. Eik.

Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETAKO
Telefonia eta faxe:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETAKO
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETAKO

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETAKO

943 793 187